

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Zipaioak matxino

INDIA, 1857KO OTSAILAREN 26A. Zipaio talde batek, Bengalako 19. infanteria erregimentuak, uko egin zion munizio berria erabiltzeari. Lehen aldiz iritsi ziren Indiara Lee-Enfield rifle berriak. Rifle horientzako kartutxoek mintz koipetsu bat zuten, soldaduek hortze-kin kendu beharrekoa. Zurru-murruek zioten mintz horrek txerrietan edo behietan zuela jatorria eta, beraz, berau ahoarekin erabiltzea larria zen soldadu hinduentzat zein musulmanentzat. Erregimentuko koronel ingelesa irtenbide baketsua topatzen saiatu zen.

Maiatzaren 9an, ordea, zalditeriako 3. erregimentuko 85 kidek egin zioten muzin munizio berriari. Publikoki umiliatu eta 10 urtera kondenatu zituzten. Hurrengo egunean zalditeriako 10. eta 20. erregimentuak ofizial ingelesen aurka altxa ziren. Maiatzaren 11n ordurarte ingeles en aginduetara zeuden errebeldeak Delhira iritsi ziren. Zipaioak asko ziren: 257.000 1857an, britainiar armadako soldaduak baino gehiago.

Munizioaren koipea aitzakia baino ez zen izan. Azken hamarkadatan Ekialdeko Indietako Konpainia Britainiarraren itzala zabalduz joan zen Indian. 1840ko hamarkadan Sindh eta Punjab herrialdeak mendean hartu zituen. 1854an Berar probintziari egokitu zitzaion, 1856an Awadh-Oudh hartu zuten, eta handik

gutxira mogolen inperioa desagertu zen, britainiarren mesedetan.

Gainera, indiarrentzat ingelesak mehatxua ziren euren ohitura erlijiosoentzat. Eta iritsi berriek ezarritako sistema judizialak bertakoak kaltetzen zituen. Mendean hartutako lurretan Konpainiak nekazarien lanbaldintzak are gehiago gogortzen zituen. Hori guztiari, gehienbat jatorri indiarreko soldaduz osatutako armadari esker eusten zioten. Eta zipaioen baldintzak ere ez ziren onak.

Indiako erdialdean hainbat garaipen lortu zituzten zipaioek matxinadaren hasieran, baina britainiarren estrategia eta armak hobeak ziren. Indiar askok ingeles en alde egin zuen, gainera; ez zuten erregimen mogola itzultzerik nahi.

1858ko ekainaren 20an britainiarrek Gwalior en hartu zituzten mendean azken matxinoak.

Gerra odoltsuak izan zuen ondoriorik. Ingelesek ez zuten aurrerantzean bertako ohi-turen aurkako ahaleginik egin; etekin handiagoa lortzen zuten berez kastatan banandua zegoen gizartea are gehiago banantzen, are gehiago ahultzen. Eta Ekialdeko Indietako Konpainiaren agintaldia ere hortxe amaitu zen; handik aurrera India Britainiar Koroaren lurraldea zen, hots, Victoria erreginak zuen aginte zuzena. Eta hala izango zen beste ehun urtez. ■



Bi ofizial britainiar, zipaioak inguruan dituztela.

ARRASTOAK

ATAPUERCAKO aztarnategiko indusketa-kanpaina amaitu da berriki. Uda honetako uzta oparoa izan da: 1,2 milioi urteko hagina aurkitu dute, hau da, *Homo antecessor* delakoaren arrasto berriak. Eta kanpaina amaitzeaz zela duela 500.000 urte hildako emakume gazte baten garezurra ere

topatu zuten. Horrek esan nahi du aztarnategiak oraindik zeresan handia eman dezakeela lehen hominidoen inguruan. Horregatik Gaztela-Leongo Juntak eta Atapuercako indusketen zuzendariak akordioa sinatu dute 2008ko kanpaina bi hilabetera luzatzeko.

